


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %0,4 igo ziren 2006ko uztailean

Azken hamabi hilabeteetan (2005eko uztailetik 2006ko uztailera) eraikuntzaren kostuak %5,0 igo dira.

EUSTATEN datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntzaren kostuen indizeak %0,4ko igoera izan zuen 2006ko uztailean, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %5,0eraino igo zen. Aurreko urteko abenduaren aldean, %4,9 igo da.

Urte arteko aldakintza-tasak, 1997-2006



(*) Gehikuntza uztailako urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2006ko uztailean lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (%0,0), aitzitik lehengaien kostuek %0,6ko igoera izan dute.

Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek antzeko bilakaera izan dute: eraikuntzak %0,6ko igoera izan du aurreko hilabetearen aldean, eta Obra Zibilako lehengaien kostuek %0,7koa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran argi ikusten da antzeko ibilbideak izan dituztela: eraikuntzako lehengaien kostuak %5,0 gehitu ziren, eta obra zibilekoak %4,7.

Uztailan, prezioaren hazkunde handienak, besteak beste, asfaltozko produktuetan (%6,1), energia elektrikoan (%3,6), petrolioaren eratorrietan (%2,5) eta burdina eta altzairuan (%1,9) kontsumitutako lehengaietan eman ziren. Ondoko hauetako lehengaien prezioak, aldiz, gutxitu egin ziren: beira (%-0,8), erauzketa-agregakinak (%-0,2), zementu artifiziala (%-0,2) eta esku-tresnak (%-0,1).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan zituztenak ondokoak izan ziren: energia elektrikoa (%22,9), asfaltozko produktuak (%18,5), petrolioaren eratorriak (%12,3), burdina eta altzairua (%13,2) eta lehergailuak eta gasak (%7,3). Bestalde, urte batetik bestera (2005eko uztailetik 2006ko uztailera) lehengaien prezioan murrizpenak edo hazkunde txikiagoak izan dituzte honako hauek: zeramika-produktuak (%-0,1), harri landua (%0,0), zur eta kortxoa (%0,7) eta pinturak eta bernizak (%0,8).

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE / Datu aurrerapena. 2006ko Uztaila

GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	125,2	0,4	5,0	4,9
ERAIKINAK	125,1	0,4	5,1	4,9
OBRA ZIBILA	125,6	0,4	4,9	4,9
LEHENGAIEN KOSTUA	121,9	0,6	4,9	4,8
ERAIKINAK	122,0	0,6	5,0	4,8
OBRA ZIBILA	121,7	0,7	4,7	4,6
LAN-ESKUAREN KOSTUA	132,8	0,0	5,3	5,3

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp